2016-VI-20
Número 495. zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Greba mugagabea Bizkaiko Erresidentzietan?

Ekainaren 14an Bizkaiko Egoitzetako langileek amaiera eman zioten astebeteko grebari. Astebeteko greba hori barne, egoitzetako langileek 18 greba-egun egin dituzte guztira. ELA izan da grebaren dei-egilea, gainontzeko sindikatuek, hitzez behintzat gure diagnostikoarekin bat egin arren, ez baitituzte deialdi hauek babestu. Oso oso ontzat jo behar ditugu greba-egunak, erantzuna oso zabala lortu baita, eta gero eta egoitza gehiago eta langile gehiago batu direlako grebara. Azken greba-deialdian Bizkaiko 30 egoitzarik handienetatik %75 batu ziren, eta langile gehien-gehienak atxiki zaizkio grebari. ELAk ordezkaritza duen gainerako egoitzetan, eguneko zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan erantzuna oso nabaria izan da baita ere.

Dena dela, 18 greba-egun egin badira ere, sektoreko hiru patronalek (GESCA, LARES, ENBE) eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez dute negoziazio-borondaterik agertu. Sektoreko hiru patronalek ez dituzte oraindik aztertu langileen eskariak; eta bitartean, langileek nekez eutsi ahal diote arreta-kalitateari, lan-baldintzak gero eta prekarioagoak dira-eta. Bestalde, Gizarte Ongizateko ahalduna patronalaren ikuspuntuaren alde azaltzen da oraindik ere, eta ez du bilerarik egin grebaren sindikatu dei-egilearekin. Gogoratu beharrekoa da zerbitzu hori Aldundiak finantzatzen duela %70ean, eta Aldundiaren ardura dela zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa bermatzea egoitza guztietan.

Egoera larri horren aurrean, ELAk mobilizazioak bultzatzen jarraituko du, eta greba mugagabea deitzeko aukera aztertuko du irailean. Helburua langileen eskakizunak betetzea da: astean 35 orduko lanaldia, soldata-igoera duina, ratioak eta lan-kargak arintzea, baja-osagarria hobetzea eta lizentziak berraztertzea. Orain arte ez digute grebara jo beste aukerarik eman. Ea etorkizunean zer gertatzen den.




### ELAren txosten batek argi uzten du politikak, enplegurako prestakuntzaren funtzionamendua eta Lanbide zeharo aldatu beharra dagoela

# ENPLEGU POLITIKA DESEGOKIA DA, ETA PRESTAZIO SOZIALAK URRIEGIAK



*Ezker eskuin Esperanza Lizarraga, Mikel Noval, Janire Landaluze, Miren Zubizarreta eta Javier Anabitarte, ekainaren 15ean egindako aurkezpenean.*

ELAk Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika eta Lanbideren (beraz, Eusko Jaurlaritzaren) esku dauden gizarte-prestazioak aztertzen dituen txostena aurkeztu zuen ekainaren 15ean. (Txostena ELAren web orrialdean eskuratu liteke). ELAko gizarte politiken arduradun Mikel Novalek Bilbon egindako agerraldi publikoan salatu zuenez, egungo errealitatea aztertu ostean bi dira gure sindikatuak ateratzen dituen ondorio nagusiak: Eusko Jaurlaritzaren enplegu-politika desegokia da gizarte-prestazioak urriegiak dira.

"Gobernuak goitik behera aldatu behar ditu politika horiek eta bitarteko egokiak jarri arlo publikoan gauzak behar bezala egin daitezen. Horretarako, Lanbideri giza-bitarteko gehiago eta egonkortasun handiagoa eman behar zaizkio, prestazio ekonomikoak jasotzen dituen jendeari behar bezalako arreta emateko eta orientazio zein bitartekaritza lana banan-bana garatzeko".

### ALDAKETARAKO PROPOSAMEN UGARI

ELAren txostenak agerian uzten du posible direla bestelako enplegu politikak egitea. Horretarako neurri sorta bat proposatzen du. "Hasiera puntu bezala argi ikusten dugu enplegu-politikak berton erabaki behar direla. Gaur ez da hala gertatzen; euskal administrazioak espainiar estatuan erabakitako politikak kudeatu besterik ez du egiten. Funtsezkoa da politika aktiboen transferentziarekin batera horiei buruz erabakitzeko ahalmena izatea, eta baldintza ez izatea espainiar estatuan ezarritako eredu kaskarrak aplikatu beharra. Espainiako enplegu-politikak porrot egin du; hala adierazten dute langabezia, prekaritate eta laneko istripu kopuruek. Politika horiek aplikatzen jarraitzea zigor bikoitza da, beraz".

Enplegurako prestakuntzari edo gizarte-prestazioen inguruan ere ELAk dituen proposamenak biltzen ditu txostenak. "Enplegurako prestakuntza eredua ekonomia produktiboaren eta langileen beharrizanen zerbitzura jarri. Gizarte-prestazioei buruz ere bada zer hobetu. Prestazio ekonomikoen sistemaren estaldura hobetu beharra dago, zenbatekoari zein eskubidea duten kolektiboak hedatzeari dagokionez. Horretarako lehen urratsa azken urteetan egindako murrizketak bertan behera uztea da".

> *"Es necesario mejorar los servicios públicos de empleo y potenciar las prestaciones sociales, que actualmente son totalmente insuficientes"*

# EL CONCURSO DE ACREEDORES DE VIRTISÚ FUE INTENCIONADO

El Juzgado de lo Mercantil nº2 de Bilbao ha calificado el concurso de acreedores de Virtisú "culpable e intencionado". De este modo, condena a Jofel Industrial –accionista mayoritario– a la reposición de 26 millones de euros más intereses, además de inhabilitar a Jofel Industrial por un periodo de cinco años.

La sentencia deja claro que, tal y como ELA defendió desde el primer momento, la planta era viable y tenía futuro; fueron los gestores de la planta de Virtisú en Zalla –Jofel Industrial y su entramado financiero– los únicos responsables de la situación económica. El concurso era una obra diseñada para engañar a la plantilla, al resto de acreedores, y a las administraciones públicas y judiciales.

ELA quiere felicitar a la plantilla de esta empresa, que siempre han luchado por un proyecto industrial para Ezkerraldea-Kadagua.



SEMINARIO INTERNACIONAL: SOBERANÍA NACIONAL Y CUESTIÓN SOCIAL

# EL SOBERANISMO, A DEBATE



**Organizado por la Fundación Manu Robles-Arangiz –en colaboración con UNED-Bergara–, los días 16 y 17 de junio se celebró en Gasteiz un seminario internacional bajo el título 'Soberanía nacional y cuestión social'. El primer día intervinieron Pablo Solón –ex-embajador de Bolivia ante la Organización de Naciones Unidas y actual director ejecutivo de Focus on the Global South–, Quim Arrufat –licenciado en Ciencias Políticas y responsable internacional de las CUP– y Mixel Berhokoirigoin –dirigente y fundador del sindicato ELB y ex-presidente de Euskal Herriko Laborantza Ganbara–. Por su parte, el segundo día intervinieron Iñaki Lasagabaster –catedrático de Derecho Administrativo de la Universidad del País Vasco–, Unai Apaolaza –doctor en Filosofía y miembro de Lapiko Kritikoa–, Hedoi Etxarte –escritor, traductor y miembro-activista de Katakrak–, Idurre Eskisabel –profesora de periodismo en la Universidad del País Vasco y militante feminista–, Amaia Muñoa –secretaria general adjunta de ELA– y Adolfo Muñoz –secretario general–. A continuación, recogemos un breve resumen de estas jornadas.**

### Pablo Solón, ex-embajador de Bolivia ante la ONY y director ejecutivo de Focus on the Global South

## "EN BOLIVIA SE HAN MEJORADO MUCHAS COSAS, PERO NO SE HA LOGRADO UNA ALTERNATIVA AL NEOLIBERALISMO"




Pablo Solón comenzó su intervención analizando el contexto histórico con el que el Movimiento al Socialismo-Instrumento Político por la Soberanía de los Pueblos, liderado por Evo Morales, llegó a la presidencia de Bolivia. "En Bolivia se produjo una articulación de diferentes movimientos sociales de todo tipo, que consiguió presentarse a las elecciones derrotando al anterior gobierno y llegando a la presidencia. Al llegar al poder había dos objetivos principales. El primero, la defensa del 'buen vivir', un sistema que pusiera en el centro a las personas, la vida y el planeta. En segundo lugar, la diversificación económica". "La primera gran medida que adoptó el gobierno fue tomar el control de su principal recurso: el gas natural. No se produjo una nacionalización, sino una renegociación con las multinacionales. Pese a las voces apocalípticas, no se fue ninguna de ellas. Desde ese momento y hasta ahora, el 80% del beneficio va para el estado, y el resto para las multinacionales. Durante 10 años de bonanza, con precios altos en los hidrocarburos, el Estado pudo llenar con dinero las arcas, dinero que se destinó a una sociedad pobre como la boliviana".

Con el paso del tiempo y de los acontecimientos, Solón considera necesario hacer una autocrítica de los errores que se cometieron en su país. "Diez años después no ha habido diversificación de la economía, y con la caída del precio gas, el Estado ya no ingresa tanto dinero como lo hacía antes. Se han mejorado las cosas, es verdad, pero no se ha construido una alternativa al neoliberalismo. Históricamente hemos sido un país extractivista, y cuando llegó la izquierda al poder, también. Desgraciadamente, esta ha sido la tónica general en la izquierda latinoamericana estos últimos años".

"La pregunta es obvia: ¿era posible salir de esta situación? Los primeros años era muy difícil, con la derecha boliviana en fase guerracivilista. Pero a esa derecha se la logró derrotar. Ese fue el momento para cambiar la situación. Sin embargo, no lo hicimos, nos quedamos en esa primera fase de reacción. Y ese ha sido nuestro drama. No hemos logrado una alternativa al sistema. En un principio se quiso diversificar y se hicieron planes. Pero al final la praxis fue que ante la evidencia de que lo que más recursos inmediatos generaba eran los grandes recursos extractivistas del gas, ese relato se fue imponiendo, dejando sin desarrollar una alternativa a un sistema inviable".

#### APRENDER DE LOS ERRORES

Según Solón, la izquierda ha cometido graves errores en Bolivia, errores que se han repetido en gran parte de Latinoamérica. "Creímos que llegar al gobierno podía ser suficiente para cambiar las cosas, pero no. Solo desde el poder no se cambian las cosas, las cosas se cambian desde la sociedad. Para eso es necesaria una sociedad civil muy fuerte, se necesita una estrategia de contrapoder. Si no hay un fuerte movimiento social organizado el gobierno va a quedar capturado por todos aquellos elementos hostiles de la derecha y el capital".

En Bolivia, cuando se ganaron las elecciones, había que asignar más de 500 cargos gubernamentales, pero no había gente para llenar todos esos cargos. Lo que se hizo fue meter a los dirigentes sindicales y sociales para ocupar esos cargos, y la resultante fue que se descabezaron esos movimientos sindicales y sociales. Un dirigente sindical o agrario que no ganaba 100 euros al mes pasó a ganar 1.500 euros. Con ese cambio muchos dirigentes entraron en la lógica política del gobierno, y su interés ya no era el cambio social, sino seguir en el Gobierno para seguir con el negocio. Incluso muchos hicieron negocio con el propio Estado, que en esos primeros años tenía dinero recién ingresado por las nacionalizaciones. Nunca un dirigente de una organización social debería entrar a dirigir fondos del estado".

"Al descabezar a los movimientos sociales –continuó Solón– se estaba anulando la capacidad de contrapoder de la sociedad. El paso del tiempo nos deja claro que es un error no criticar al gobierno porque se piensa que así se hace el juego a la derecha. La crítica constructiva es vital. Si no criticas al gobierno porque crees que eso beneficia a la derecha lo que haces es ahondar en los errores de ese gobierno. Se necesita pensamiento libre. Lo grave es estar en el gobierno y que desde la izquierda te digan a todo que sí. Esto significa que algo va mal".

En opinión de Solón, es evidente que el ciclo de la actual izquierda en Latinoamérica se está acabando. "Pero eso no significa que la izquierda estará fuera de la escena hasta el próximo ciclo de cambio político. No. Estamos en un proceso de reconstrucción, se empiezan a dar pasos. Vivimos tiempos de cambios muy bruscos. Los procesos de aprendizaje son muy rápidos. Tanto en Bolivia como en los países gobernados por la izquierda en Latinoamérica los indicadores de crecimiento, empleo, salario o reducción de la pobreza han sido buenos. Sin embargo, el error ha sido que esto lo hemos logrado desde una lógica de extracción de los recursos naturales, una lógica que ha puesto al Planeta en una situación límite. Además, el precio de estos recursos naturales ha bajado mucho estos años, por lo que ya ni siquiera sirve para llenar las arcas públicas. Nuestro error ha sido no haber buscado una alternativa al sistema, una diversificación de la economía, un proyecto viable con la supervivencia de la Tierra. Y la izquierda tiene que aprender de todos estos errores".

# NAZIOARTEKO MINTEGIA: BURUJABETZA NAZIONALA ETA AUZI SOZIALA

### Quim Arrufat, responsable de Internacional de las CUP

## "EL PROBLEMA CON ESPAÑA NO ES DE PLURINACIONALIDAD, ES DE SOBERANÍA"




Quim Arrufat comenzó su intervención analizando el origen municipalista de las CUP. Un munipalismo desde el que, como consecuencia de la triple crisis que estaba viviendo Catalunya el periodo 2008-2011, dio el paso a la política nacional, presentándose el 25 de noviembre del 2012, por primera vez, a las elecciones al Parlamento de Catalunya. "Estábamos de pleno en una crisis que tenía tres ejes: la económico-financiera, la democrática y la nacional. En aquella época vimos que por vez primera ese contrapoder popular que habíamos construido en los municipios estaba preparado para saltar al Parlament. La sociedad catalana estaba destituyendo el poder y legitimidad española. Por eso decidimos saltar al plano nacional".

Quim Arrufat considera que el mayor empeño de las CUP es intentar generar una nueva cultura política. "Es verdad, muchas veces los ritmos del proceso nacional iban a un ritmo y los de la CUP a otros. Ha habido gente que, incluso, nos decía que nuestros ritmos no eran políticos sino prepolíticos, que no eran ritmos de Estado. Lo que pasa es que para nosotros y nosotras crear una nueva cultura política es clave para cambiar la sociedad. Esta nueva cultura tiene dos ejes. Por una parte, si no cultivas una cultura política participativa, la gente se convierte en consumidora política, no en militante política. Tenemos límites muy claros, como que no se puede repetir más de una legislatura en el Parlament o dos en los Ayuntamientos. Nuestra cultura es muy radical en turnar y no tener lider. El segundo eje es la forma comunicativa. Tenemos establecido un salario de poco más de 1.400 euros, que sirve para cualquier cargo público, incluso para la alcaldesa de Badalona, que con sus más de 200.000 habitantes es la ciudad más grande en la que gobernamos".

**¿CAMBIO POLÍTICO O CAMBIO DE ÉLITES?**

El responsable de internacional de las CUP también habló de la actual coyuntura política, centrándose, sobre todo, en el tema de la soberanía. "El problema de Catalunya con España no es de nacionalidad o de plurinacionalidad, es de soberanía. En Catalunya tenemos plurinacionalidad para parar un tren. Desde la Guerra Civil hasta hoy hemos triplicado la población, teniendo una tasa de natalidad baja. Esto ha sucedido por los millones de personas que vinimos a Catalunya desde diferentes naciones a trabajar. Por lo tanto, plurinacional tenemos un montón. El problema es quién decide. La clave es la soberanía: soberanía para poder decidir en cualquier ámbito de nuestras vidas. Incluso España también carece de muchos instrumentos soberanos para hacer frente a poderes fácticos supranacionales o financieros".

Por último, Arrufat habló del papel de la izquierda cuando llega a las instituciones. "Es evidente que estos últimos años han surgido fuerzas emergentes que, incluso, han alcanzado importantes cuotas de poder. Pero la duda es si estamos ante un cambio político o un cambio de élites políticas. ¿Las nuevas fuerzas emergentes van a cambiar las cosas o solo sustituirlas? A mí me preocupa este 'asalto masivo a las instituciones'. Lo digo por lo siguiente. Con todo el respeto hacia Ada Colau, desde que gobierna en el Ayuntamiento de Barcelona ha fichado a 180 personas de los movimientos sociales para diferentes cargos. Al final, mandas cuadros políticos a las instituciones y descabezas los movimientos sociales. Para mí lo importante no es participar en la institución, sino cambiar la sociedad".

### Mixel Berhokoirigoin, ELBko sortzaile eta zuzendaria

## ZER SUBIRAUTZA MOTA NAHI DUGU?




Mixel Berhokoirigoinek egitura administratibo propiorik ez duen herri batean soberania nola eraiki galderari erantzun nahi izan zuren bere parte-hartzean. "Iparraldetik eta nekazal mundutik nator, erabaki gunerik gabeko eremu batetik. Horrelako testuinguru batean subirautzaz hitz egitea paradoxikoa izan liteke, baina gurean bada biziki aberasgarria den errealitate bat: Ipar Euskal Herrian erabaki esparruak lotua baitira gizarte mugimenduei. Gakoa zera da: zer subirautza mota nahi dugun galderari erantzutea. Zer esan nahi du hitz honek mugarik gabeko mundu honetan? Nola asmatzen dugu burujabetza herriek baina botere gehiago duten multinazional edo finantza erakundeen aurrean? Badira herri baten subirautza mugatzen duten faktore asko. Ororen buru erabaki behar da zer subirautza nahi dugun gauzatu. Hori garrantzitsua da ez erotzeko kontra-zentzua duten gauzetan".

## BURUJABETZA NAZIONALA ETA AUZI SOZIALA LOTUZ

Euskal Herria, soberania, burujabetza nazionala, auzi soziala eta ELA. Horiek izan ziren ekainaren 17an mintegian landu ziren gai nagusiak. Lehenik **Iñaki Lasagabaster** juristak euskal autogobernuaren egungo egoeraren inguruan hausnartu zuen, beti ere ikuspegi juridikoa oinarri hartuta. "Espainian batasuna demokraziaren gainetik dago. Horrek ondorio larriak ditu. Egungo errealitatea hauxe da: autogobernu erakunde ahulak ditugu, eta gure Parlamentuak ez dura soberanoak, Espainiako Auzitegi Konstituzionalagatik guztiz baldintzatuta dago. Egoera honen aurrean, soberania izan nahi badugu, Estatu egiturak behar ditugu. Bestela, beti egongo gara kanpoko gobernu eta epaitegien esku. Horretarako, noski, ezinbestekoa da konfrontazioa. Kontua da horretarako borondatea behar dela. Izan ere, historiak erakusten digu askatasuna eta eskubideak ez dituztela oparitzen, oparitu egiten dira".

Autogobernuaren bilakaera aztertu ostean, etorkizunari begira jartzeko ordua heldu zen. Horretarako, Ivan Gimenezek gidatuta, mahai inguru mamitsua egin zen. Hiru izan ziren parte hartu zuten lagunak: **Unai Apaolaza** filosofoa eta Lapiko Kritikoa kolektiboko kidea, **Hedoi Etxarte**, idazlea eta Katrakrak-eko langile-militantea eta **Idurre Eskisabel**, Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritza irakaslea eta militante euskaltzalea eta feminista.

**Apaolaza**k Euskal Herrian independentismoa handitzeko tresna eraginkorrak lortzearen garrantzia azpimarratu zuen. "Independentismoa nazionalismoaren begietatik ikusten dugu, eta hau irauli beharra dago. Independentismoa nazioarekin lotzen badugu, nazionalismoaren mugak zeintzuk diren jakinda, independentismoari mugak jartzen ari gara. Zergatia agerikoa da. Gaur egun abertzaleen batasunaren ideia hutsak bere mugak ditu, ideia horren adiera klasikoan %55aren langa. Subjektu berria landu behar dugu aktiboa izango den independentismoa %80a izatea nahi badugu".

**Etxarte**k Nafarroaren egoera aztertu zuen, eta herritarren mobilizazioaren garrantzia azpimarratu zuen. "Erregimena deitzen genuen horren erorketan jendearen mobilizazioa ezinbestekoa izanda. Eta, orain, mobilizazioak are eta garrantzia gehiago hartzen du. Ziur naiz kalean erabakiko dela neurri handi batean Gobernu berriaren jarduna. Nafarroan jendartea adi dago. Gaizki egiten dena salatzen da unean bertan. Hau oso positiboa da. Nafarroa aldatu da. Aldatu da eta Estatua krisi sakonean sartu du. Katalunia eta gero Estatuaren lege gehien errekurrituak dituen erkidegoa da. Guztira 17 lege dira, horietako asko egungo gobernuarenak, baina beste batzuk aurreko gobernuarenak. Honek adi egotera behartzen gaitu. Nafarroako prozesua, edo kaletik bultzatuko da edo atzerakada bat izango du".

**Eskisabel**ek feminismoa eta euskalgintza lotu zituen bere hitzaldian. "Urte askotan distantziatuta egon diren bi errealitate hauek ezinbestekoak izan dira gure ibilbide pertsonalean. Diskurtsiboki euskalgintza neurri batean agortuta eta nekatuta ikusten genuen, galdera askori erantzuteko zailtasunekin. Zergatik euskalgintzaren lotura feminismorekin? Galderei erantzun berriak ematen hasi nahi genuen. Ikusten genuen feminismoak identitatearen inguruan egiten duen hausnarketa egokia izan zitekeela euskalgintzarako. Feminismoak irakurketa postmodernoan asmatu du, norberaren askapen pertsonalarekin lotutako gaien inguruko hausnarketa egokia egiten du. Feminismoren beste ekarpen bat identitate auzi bat zena (emakumeena), demokrazia eta justizia auzi bat bihurtzea izan da. Euskarak ere diskurtso horretan asmatu behar du".

Jardunaldiei amaiera emateko **Amaia Muñoa** –ELAren idazkari nagusiaren albokoa– eta **Adolfo Muñoz** –ELAren idazkari nagusia mintzatu ziren–. Muñoak ELAk azken 40 urteetan izan duen bilakaera aztertu zuen. Izan ere aurten 40 urte betetzen dira ELAren III. kongresutik, gure sindikatuaren birfundazioa ekarri zuen kongresua. Azkenik Muñozek egungo abagunearen hausnarketa mamitsua egin zuen, etorkizunari begirako gako interesgarriak nabarmenduz.



# "SEGUIREMOS LUCHANDO POR EL MANTENIMIENTO DE LA ACB"



El 14 de junio, la asamblea de trabajadores y trabajadoras de la ACB decidió aceptar el Plan Industrial presentado por la dirección de Arcelor Mittal –143 votos, a favor; 127, en contra y 12 abstenciones–. En opinión de Aitor Garriga, responsable de la Federación Industria eta Eraikuntza en Ezkerraldea-Kadagua, "estamos ante una victoria pírrica tanto para la dirección como para los sindicatos UGT y CCOO, que tienen mayoría absoluta en el Comité de Empresa".

"La dirección de Arcelor Mittal ha desarrollado una campaña cuyo único objetivo era amedrentar a la plantilla. También para UGT y CCOO es una victoria pírrica. Estos sindicatos han abandonado la lucha por el empleo y la viabilidad de la planta de Sestao. Además, para ELA hay un tema muy importante a tener en cuenta: se ha discriminado a la mitad de los trabajadores y trabajadoras afectados por el Plan Industrial al haber impedido participar en la votación al personal de las contratas y al personal eventual".

Para Aitor Garriga, aceptar el Plan de la dirección supone el inicio del cierre de la planta de Sestao. "El único vencedor es Arcelor Mittal, que logra su objetivo. El mal denominado plan industrial contempla reabrir la planta de Sestao a comienzos de julio los fines de semana para producir 12.000 toneladas manteniendo una jornada continua de 12 horas en los puestos en que se necesite. La plantilla, compuesta ahora por unas 300 personas, se reducirá a alrededor de 140, se facilitará la jubilación parcial a quienes nacieron entre los años 1955 y 1957, y el resto accederá a un expediente de regulación temporal de empleo".

"En definitiva –añade– es una propuesta que no garantiza absolutamente nada. No hay ni un solo compromiso por parte de Arcelor Mittal en el mantenimiento de la actividad industrial de la ACB, sino todo lo contrario: limitar la actividad a dos fines de semana al mes supone la definitiva deslocalizacion de las bobinas que se fabrican en Sestao". Finalmente, Aitor Garriga ha manifestado su apoyo y respaldo "a los trabajadores/as que han vencido el miedo y han votado en contra de este plan. ELA seguirá peleando por el mantenimiento de la planta. En este sentido, volvemos a hacer un llamamiento a las instituciones para que se sumen a este objetivo".

# LABURREAN / BREVES

### • Urdulizko Ospitala %100 publikoa izan dadin exijitzeko lanuzte arrakastatsua

ELA, SATSE, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek deituta ekainaren 14an bi orduko lanuztea egin zen Bizkaiko osasun sistema publikoan. Sindikatu deitzaileen arabera, lanuzteak bi helburu zituen. Lehenengoa, osasun-zentroen kudeaketari buruzko eztabaida publikoa piztu nahi zen; bigarrena, pribatizazio horien eraginpeko kategoriei protestatzeko aukera ematea.

### • ELA planteará la convocatoria de una huelga indefinida en septiembre en las residencias de Bizkaia

El 14 de junio finalizó la semana de huelga convocada por ELA en el sector de las Residencias de Bizkaia. Una huelga que, como las anteriones convocatorias, contó con el respaldo muy mayoritario de las trabajadoras del sector. En caso de que las próximas semanas ni las patronales con representación en el sector –GESCA, LARES y ELBE– ni la Diputación Foral de Bizkaia –adjudicadora y principal financiadora del servicio– cambien de postura, ELA planteará la convocatoria de una huelga indefinida a partir de septiembre en el sector.



### • Ikastorduak handitzeak ondorio larriak izango ditu

Iragan astean hainbat hedabidek jakitera eman zuenez, Eusko Jaurlaritzak irakastorduak gehitzea eskatzen duen Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren epaia betetzeko asmoa du. Honek Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan –bai irakaskuntza publikoan zein itunpekoan– bi irakastordu gehiago ematea suposatuko luke, 23 ordutik 25ra pasatzea, alegia. Eta Bigarren Hezkuntzan, irakaskuntza publikoan, 17-18 ordutik 20ra pasatzea. Honekin batera ordezkapenak 10 egunera arte atzeratzea suposatuko luke erabakiak. Hau honela ezarriz gero, irakaskuntza publikoan 2.300 lanpostutik gora desegingo lirateke eta itunpeko irakaskuntzan 600dik gora. Hau guztiagatik, ELAk Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio autogobernua ezerezean utzi eta oinarrizko eskubide eta zerbitzuak txikitzen dituen espainiar estatuaren neurriei aurre egin eta herritarron interesak eta gure hezkuntza sistema defenda ditzala.

# PARIS365-BILBO JANGELA SOLIDARIOA MARTXAN JARRI NAHI DUGU!

Egunean hiru otordu egin ahal izatea. Horren oinarrizkoa den gauza hau lortu ezinezko ametsa da jende askorentzat guretzat. Horregatik, Gizakia Herritar Fundazioak 'Paris 365-Bilbo Jangela Solidarioa' proiektua martxan jarri du. Proiektu honen helburua Bilboko herritar guztiek egunen gutxienez kalitatezko hiru otordu egin ahal izatea da. Helburu hori lortu asmoz, Gizakia Herritarrek aurki jangela solidario bat zabalduko du Bilboko bihotzean.

Asko dira ekimen hau aurrera ateratzeko lanean ari diren boluntarioak. Hala ere, proiektua bideragarria izateko gutxieneko baliabide ekonomiko batzuk behar dira. Horretarako diru-bilketa kanpaina herritarra martxan jarri dute.

**https://www.goteo.org/project/comedor-solidario**

Interesa duen orok aski du bertan klik egitea eta ahal duen ekarpena ematea. Asko dira gisa honetako proiektu batek dituen gastuak: lokalaren alokairua, langileen soldatak, janaria erostea… ELAk bere babesa eman nahi dio proiektuari. Proiektua KOOP-57 finantza elkarteak finantzatuko du; ELAk kopuru horren zati bat abalatuko du.

*El comedor solidario Paris365-Bilbao tiene como objetivo garantizar a quien lo necesite tres comidas diarias de calidad. Para lograr ese objetivo, han puesto en marcha una campaña de recogida de dinero en red: https://www.goteo.org/projecto/comedor-solidario*

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**